

Donostia · Bidasoa-Txingudi · Oarsoaldea · Buruntzaldea · Tolosaldea ·
 Goierri · Urola Garaia · Urola Erdia · Urola Kosta · Debagoiena ·
 Debarrena · Al día

Vec

Noticias de

Gipuzkoa

Sagardogintzako herri kirolen lehiaketa antolatu dute bihar arratsalderako Astigarragan

SAGAR UZTA FESTAREN HARIRA IZANGO DA ETA SEI UDALERRI ARIKO DIRA AURREZ AURRE

Goizean, aldiz, 300 lagun elkartu nahi dituzte kizkiarekin sagarra biltzen, Joseba Barandiaran plazan

Sagardodenda

ARKAITZ ILLARRAMENDI

Euskal Sagardoaren online
 Denda Astigarragatik mundu
 osora

www.sagardodenda.com

Oposaketak 2009

2009ko oposaketa guztien
 doain informazioa eska ezazu

www.CanalOposiciones.com/Oposaketak

Anuncios Google

ASTIGARRAGA. Herrien arteko sagardogintzako herri kirolen lehiaketa egingo dute bihar, bigarren urtez, Astigarragako IX. Sagar Uzta festaren barruan. Iazko saio arrakastatsuen ostean, aurtengoan sei udalerrietako ordezkariak ariko dira lehian. Hain zuzen ere, Astigarragakoekin batera, Oiartzun, Orereta, Urnieta, Bentak, eta Bidasoa-Urumeako kirolariek hartuko dute parte. Lehiaketa hasteko hitzordua arratsaldeko 17.30ean jarri dute, Joseba Barandiaran plazan.

Lehiaketak hiru kirol proba ditu. Lehenengoan, parte hartzen duen talde bakoitzak (hiru gizonetako eta emakumezko batek osatuta) sagar karga erdi bat (150 kilo) kizkiaz jaso beharko du.

Jarraian, saskietan bildutako sagarrak zakuetan sartuko dituzte eta aldamenean izango duten leraren gainean jarri beharko dituzte zakuak.

Azkenik, sagar karga bat (300 kilo) leratik tiraka tolarera garraiatu beharko dute, hamar plazako luzera eginez. Azkenik, sagar karga erdi bat matxakara bota eta txikitu egin beharko dute taldekideek. Lehiaketarako zehaztutako arauen arabera, denbora gutxienean lana ondoen betetzen duen taldea izango da irabazlea.

Iaz egindako lehen lehiaketan -aurtengoaren moduan Goldea Herri Kirol Batzordeak antolatu zuen-, lau taldek hartu zuten parte: Urnietak, Hernanik, Baserritar Gazteek eta Astigarragak. Amaieran, etxekoak izan ziren nagusi, kirol proba guztiak 23 minututan gaindituz.

ERREKOR AHALEGINA Herri kirolak arratsaldean izango badira, goizean 300 lagun bildu nahi dituzte kizkiarekin sagarrak biltzeko eta, modu horretan, marka ezartzeko. 12.30ean Joseba Barandiaran plazan hasiko den ahaleginean parte hartu nahi dutenek Sagardoetxean, Lizeaga sagardotegian edo Ogiberri-Rosa okindegian eman behar dute izena.

Haznos tu página de inicio | Visite también www.noticiasdealava.com | www.noticiasdenavarra.com

© NOTICIAS DE GIPUZKOA

Avda. Tolosa 23 · 20018 Donostia · GIPUZKOA · Tel 943 319 200 · Fax Administración 943 223 900 · Fax Redacción 943 223 902

Enlaces patrocinados: Trabajo | Hosting |